



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA  
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

# ANIZTASUNARI ERANTZUTEKO PLANA

PLANA EGITEKO GIDA

2019-2020

---



### Sarrera

#### 1. Zer da Aniztasunari Erantzuteko Plana?

- 1.1. Esparrua
- 1.2. **Indarguneak** eta **premiak** identifikatzea
- 1.3. **Helburuak** formulatzea
- 1.4. **Jardunak** zehaztea
- 1.5. **Jarraipena** eta **ebaluazioa**

#### 2. Aniztasunari Erantzuteko Plana urtero zehazteko jarraibideak

- 2.1. Ikastetxearen datuak biltzea: indarguneak eta premiak
- 2.2. Ikasturte honetan eman beharreko erantzuna aztertzea eta zehaztea
- 2.3. Jardunak zehaztea
- 2.4. Zuzendaritza-taldeak proposamena aurkeztea
- 2.5. Ikasturtearen barruko jarraipena
- 2.6. Urteko balorazioa

### Tresnak

#### Eranskinak:

1. Araudia eguneratzea

## SARRERA

Eskola inklusiboak bermatzen du ikasle guztiek kalitateko heziketa izan dezaketela, eta haren xedea da ikasle guztiek garapen-mailarik handiena lortzea bizitzarako gaitasunei dagokienez. Eskola inklusiboak aniztasuna du bere jardunaren oinarrian, eta haur eta gazte guztiek kalitateko hezkuntza zuzena, bidezkoa eta aukera-berdintasunean oinarritutakoa izatea bermatzen du.

Eskola inklusiboaren helburua da ikasle guztiek eskola-arloan arrakasta izatea; izan ere, benetako bikaintasuna lortzea da ikasle guztiek beren gaitasun pertsonalak ahalik eta gehien garatzea, irteerako profileen aurreikusitako oinarrizko kompetentziak lortze aldera.

Hala jasotzen da “Eskola inklusiboa garatzeko esparru-plana, 2019-2022” planean.

Eraginkorrak izateko, hezkuntza inklusiboak **konpromisoa** eta **jarrera** eskatzen du aniztasunaren aurrean, eta eskola-elkarte osoak partekatu beharko ditu konpromiso eta jarrera horiek.

Aniztasunari erantzunik onena emango bazaio, eskola inklusiboaren oinarrizko hiru printzipioak izan beharko dira kontuan: **presentzia**, **parte-hartzea** eta **ikaskuntzaren emaitzak**.

Horretarako:

- Ikasle guztiak hartuko dituen eta, aniztasuna errespetatuz, haien arteko desberdintasunak gainditzeko lagunduko duen eskola-elkartea sustatu beharko da.
- Ikaskuntzarako eta parte hartzeko oztopoak hauteman eta ezabatu beharko dira.
- Testuinguruarekiko elkarreraginean sortzen diren premiak kontuan izan beharko dira.
- Hezkuntza-laguntzako berariazko premien hautemate eta identifikazio goiztiarra sakondu beharko da.
- Estrategiak adostu beharko dira, jardunak planifikatu beharko dira eta eragile guztien esku-hartzeak koordinatu beharko dira, betiere giza baliabideak eta baliabide materialak erabiltzeko eta espazioa antolatzeko IRIZPIDE INKLUSIBOEI jarraituz.
- Ohiko eskola-esparrutik jardun beharko da.

Aniztasunari erantzuteko, ezinbestekoa da eskola-elkarte osoa barne hartzen duten adostasunak eta akordioak lortzea. Akordio horiek ikastetxeko dokumentuetan jasoko dira:

- **Ikastetxearen Heziketa Proiektua (IHP)**

Dokumentu honetan jasoko dira eskola-elkartearen balioei, helburuei eta jarduteko lehentasunei buruzko erabakiak; kultura inklusiboan, erabaki horiek aukera-berdintasuna, ekitatea, bikaintasuna eta justizia sustatzera bideratu beharko dira.

- **Ikastetxearen Curriculum Proiektua (ICP)**

Ematen diren etapetako helburuak lortze aldera, proiektu honek **klaustroak** adostutako erantzun pedagogikoa jasoko du, eta, horretarako, eskola-elkartek Ikastetxearen Heziketa Proiektuan ezarritako akordioak kontuan hartuko ditu.

Dokumentu honek ikastetxeko aniztasunari erantzuteko erabakiak jasoko ditu: ildo metodologikoak, laguntzak antolatzeko irizpideak, ebaluazio-tresnak eta -denborak, ikasleen erregistro- eta jarraipen-ereduak, prozedurak eta arduradunak.

- **Aniztasunari Erantzuteko Plana (AEP)**

Aurreko dokumentuetan (IHP eta ICP) adostutakoa kontuan hartuko du, eta ikastetxeak hurrengo ikasturteetarako proposatzen dituen aniztasunari erantzuteko hezkuntza-helburuak eta -jardunak ezarriko ditu.

Plan hori bat etorriko da ikastetxearen Hezikidetza Planarekin eta Bizikidetza Planarekin, baita Tutoretza Planarekin ere.

Aniztasunari Erantzuteko Planak, halaber, zuzeneko isla izango du Hobekuntza Planean, eta Ikastetxearen Urteko Planaren ataletan zehaztuko da.

Ikastetxearen Heziketa Proiektuan eta Ikastetxearen Curriculum Proiektuan zenbat eta gehiago zehaztu eskola-elkartek eta ikastetxeak aniztasunari emango dioten erantzuna, orduan eta errazagoa izango da Aniztasunari Erantzuteko Plana egitea eta urteko plan batean zehaztea, aurreikusitakoa ikastetxearen benetako premietara egokitu beharko baita.


Dokumentu honek Aniztasunari Erantzuteko Plana prestatzeko gida izan nahi du. Hiru ataletan antolatuta dago: lehenengoan, Aniztasunari Erantzuteko Plan bat zer den azalduko da; bigarrenean, urtero zehazteko jarraibideak emango dira; eta, hirugarrenean, plana egiten eta abian jartzen lagun dezaketen eranskinak barnean hartuko dira.

## 1.- ZER DA ANIZTASUNARI ERANTZUTEKO PLANA (AEP)?

Aniztasunari Erantzuteko Plana (AEP) da aniztasunari ematen zaion erantzuna hobetze aldera ezartzen diren helburuak, estrategiak eta jarduerak jasotzen dituen dokumentua, eta, horretarako, ikastetxearen indarguneak eta baliabideak eta ikastetxearen premiak hartzen ditu kontuan.

Aniztasunari Erantzuteko Plana prestatzean, kontuan hartuko da:

- Indarrean dagoen arauzko esparrua (1. eranskina).
- Eskola inklusiboaren barruan eskola-arrakasta lortzeko giltzarriak (2. eranskina).
- Eskola-arrakasta errazten duten estrategiak eta jardunbideak (3. eranskina).



## 1.1. INDARGUNEAK ETA PREMIAK IDENTIFIKATZEA

Eskola-elkartearen, ikastetxearen, familien eta ikasleen indarguneak eta premiak izango dira, beti, Aniztasunari Erantzuteko Plan baten abiapuntua.

Ezinbestekoa da jakitea zein diren ikastetxe baten **indarguneak** edo puntu indartsuak, aniztasunari hobeto erantzuteko oinarri solidoa eskainiko baitigute.

Ikastetxe baten **indarguneen** adibideak:

- Aurreko ikasturteetako memorietan modu positiboan baloratutako alderdiak.
- Zuzendaritza-talde egonkor baten lidergoa.
- Aniztasunari eman beharreko erantzunean, orientazioaren arloko profesionalen inplikazioa.
- Aniztasunari eman beharreko erantzunean, irakasle guztien erantzukizun partekatua.
- Kanpoko eta barneko ebaluazioen indarguneak.
- Eskola-elkarteko baliabide finkatuak.
- Familien benetako parte-hartzea eta inplikazioa.
- Irakasleen koordinaziorako espazioa eta denbora eraginkorrak.
- ...

Aniztasunari erantzuteko eta ikasle guztien parte-hartzea eta arrakasta hobetzeko, garrantzi handikoa da, halaber, ikastetxearen **premiak** identifikatzea; xedea da eskola-testuinguruan aldaketak egitea, ikasle horiek aukera-berdintasunean arrakasta akademikoa lor dezaten eta, hartara, haien konpetentziak ahalik eta gehien gara ditzaten.

**Premien** adibideak:

- Irakasleak etengabe prestatzea jardunbide inklusiboetan.
- Ahozko adierazpeneko emaitzak hobetzea (barne-ebaluazio diagnostikoa).
- Irakurketa sustatzea: irakurketa-plana.
- Bizikidetasun positiboa sustatzea.
- Ikasleen autonomia indartzea.
- Ikasleen garapen afektiboa, soziala eta emozionala lantzea.
- Familiak ikastetxearen bizitzan inplikatzea.
- Beste zerbitzu batzuekiko koordinazioa hobetzea.



- Babesak inklusioaren ikuspegitik antolatzea.
- Pertsona guztiei zuzendutako harrera hobetzea (ikasleei, irakasleei, familiei eta abar zuzendutakoa).
- Genero-indarkeria saihesteko jardunak garatzea.
- Eskola-jardueretan sexismoa identifikatzea.
- Hezkuntza-laguntzako premia espezifikoek detekzioa eta erantzuna hobetzea.
- Igarotzeetarako protokoloak edukitzea.
- Irakasleen, ikasleen eta familien eskola-arrakastako iguripenak handitzea, zenbait kolektibotan.

## 1.2. HELBURUAK FORMULATZEA (ikus 1. tresna)

Helburuek erantzuten diete hautemandako premiei eta aniztasunaren arloko ikastetxearen planteamendu estrategikoei. Epe ertainean lortzeko helburu gisa proposatzen dira.

Hiru kategoriatan sailka ditzakegu, haien xedearen arabera:

- Inklusioaren balioaren araberako eskola-elkartea eraikitzea

### **Eskola-elkarte inklusiboa eraikitzeko helburuen** adibideak.

- Ingurunearekiko harremanak hobetzea.
- Jardunak koordinatzea beste hezkuntza-agente batzuekin.
- Familientzako prestakuntza antolatzea.
- Bizikidetasun positiboa sustatzea.
- Familiek ikastetxeko batzordeetan parte har dezaten indartzea.

- Ikastetxearen antolamendua, funtzionamendua eta emaitzak hobetzea

### **Ikastetxea hobetzeko helburuen** adibideak.

- Errefortzu-plana antolatzea, irakasle guztien inplikazioarekin.
- Ahozko adierazpena lantzea eta ebaluatzea, arlo guztietan.
- Absentismoa eta eskola-uzte goiztiarra gainditzea.
- Eskola-porrota murriztea.
- Ikaskuntza-ordutegia zabaltzea gisa honetako espazioetan: liburutegian, jantokian, jolastokian. Eta horietan familiek ere parte hartzea.
- Jardunak hobetzea beste hezkuntza-espazio batzuetan (liburutegian, jantokietan, jolastokian...), bizikidetzaren positiboari dagokionez.
- Ikasleen jarraipena egiteko tresnak indartzea eta orokortzea.
- Hezkuntza-laguntzako premia espezifikoak hautemateko mekanismoak hobetzea.

- Jardunbide inklusiboak eta ikasgela barruko eta kanpoko arreta pertsonalizatua hobetzea.

**Jardunbideak hobetzeko helburuen** adibideak.

- Plan pertsonalizatuen jarraipena hobetzea.
- Tutoretza pertsonalizatuak zabalitzea.
- Maila guztietan talde elkarreragileak sortzea.
- Curriculum-aberastasuneko proposamenak diseinatzea eta inplementatzea.
- Metodo dialogikoaren bidezko ikaskuntza-jardunbideak sustatzea.
- Ikasgelan bi irakasleren jarduna gehitzea.

Proposatzen diren helburuekin lotzen diren **lorpen-adierazleak** ezarri behar dira, plan horrekin lortu nahi den hobekuntza zehaztearren.

### 1.3. JARDUNAK ZEHAZTEA

Finkatutako helburuetako bakoitza lortzeko, **jardun** bat edo hainbat proposatuko dira, eta arduradunak eta **denborak** zehaztuko dira.

#### **Eskola-elkarte inklusiboa eraikitzekeo jardunen adibideak.**

**Helburua:** *Absentismoa eta eskola-uzte goiztiarra gainditzea.*

- Familia bakoitzarekin elkarrizketak egitea, arazoak jakiteko.
- Eskolara joateari zentzua emango dioten metodologia eta estrategiak abian jartzea ikasgelan (irakurketa-babesa).
- Hilean behin koordinatzea eragile soziokomunitarioekin eta erakundeekin.
- Eskola uzteko arriskuan dauden seme-alabak dituzten familiek batzordeetan gehiago parte-hartzea.

#### **Ikastetxearen antolamendua, funtzionamendua eta emaitzak hobetzeko jardunen adibideak.**

**Helburua:** *Bizikidetasun positiboa sustatzea.*

- Harrera-protokoloak lantzea: irakasle berriak, ikasle berriak, eskolaratze berantiarreko ikasleak.
- Ikasleek, irakasleek eta familiek parte hartzeko moduak definitzea.
- Irakasleak bizikidetasun positiboa sustatzeko kompetentziaren arloan izan beharreko prestakuntza antolatzea.

#### **Jardunbide inklusiboak hobetzeko jardunen adibideak.**

**Helburua:** *Berdinen arteko elkarreraginak sustatuko dituzten ikaskuntza-jardunbideak sustatzea*

- Jardunbide inklusiboak abian jartzea sustatzeko espazioak eta denborak antolatzea.
- Ikastetxean aniztasunari erantzuteko estrategien arloko prestakuntza-plana diseinatzea.
- Berdinen arteko laguntza eta elkarreragina sustatzeko baliabide guztiak erabiltzea (pertsonalak, materialak, espazioak...).

## 1.4. JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

Komeni da **aniztasunari erantzuteko batzorde** bat sortzea, edo Aniztasunari Erantzuteko Plana prestatzeaz, ikasturte bakoitzean planaren jarraipena egiteaz eta, ezarritako aldia amaitzean, plana bera ebaluatzeaz arduratuko den talde bat sortzea.

Honako kide hauek osatutako lantalde txikia proposatzen dugu:

- Lehen Hezkuntzan, ikasketa-burutza, aholkularia, zikloko arduradunak eta proiektuko arduradunak.
- Bigarren Hezkuntzan, ikasketa-burutza, orientatzailea, saileko burutza bat edo bi eta proiektuko arduradunak.

Ikasturte amaierako jarraipena egitean, batzordeak

- Ikasturterako aurreikusitako aniztasunari erantzuteko jardun bakoitzaren emaitza baloratuko du.
- Familien, ikasleen, irakasleen, ikastetxeari kanpo-laguntza eskaintzen dioten beste zerbitzu batzuen eta Hezkuntzako Ikuskaritzaren iradokizunak bilduko ditu.
- Hurrengo ikasturterako hobekuntza-proposamenak barnean hartuko ditu eta, hala badagokio, proposamenak berrikusteko, hobetzeko eta/edo zabaltzeko proposamenak txertatuko ditu Aniztasunari Erantzuteko Planean.

## 2. ANIZTASUNARI ERANTZUTEKO PLANA URTERO ZEHAZTEKO JARRAIBIDEAK

Aniztasunari Erantzuteko Plana landu denean, **aniztasunari erantzuteko batzordeak** ikasturte bakoitzerako zehaztapen-proposamena egingo du.

Urteko proposamen horrek atal hauek, gutxienez, hartuko ditu barnean.

### 2.1. Ikastetxearen datuak

- Urteko memorian barnean hartzen diren hobekuntza-proposamenei dagokienez, betiere ikasturterako proposatu diren Aniztasunari Erantzuteko Planaren jardun bakoitzaren baloraziotik abiatuta.
- Aniztasunari eman beharreko erantzunaren arloan hauteman diren premiei dagokienez.
- Aniztasunari eman beharreko erantzuna hobetzeko ikastetxearen indarguneei dagokienez.

Ikasturterako planteatzen diren **premiak eta/edo indarguneak** hainbat bidetatik hauteman daitezke:

- Ikasturte amaierako memoriatik.
- Emaidza akademikoen analisitik.
- Kanpoko edo barneko ebaluazioetatik.
- Eskola-elkartearen, administrazioaren edo beste erakunde batzuen eskarrietatik edo proposamenetatik.
- Balizko gogobetetze-inkestetatik.
- Aurreko etapako tutoreen informazioetatik (Haur Hezkuntzaren eta Lehen Hezkuntzaren amaieran)
- Premia espezifikoiei buruzko beste datu batzuetatik...

**2.2.** Aniztasunari eman beharreko erantzunari dagokionez eta arduradunen, baliabideen eta koordinaziorako uneen aurreikuspenari dagokionez garatuko diren **jardun guztiak zehaztea**. (3. tresna)

Jardunak taldekoak eta pertsonalizuak izan daitezke.

**Taldeko** jardunak dira talde eta/edo ikasle jakin batzuen premiei erantzuten dieten antolamendu- eta metodologia-estrategiak, barnean direla jardun horiek ikasgelako programazioan integratzen laguntzen dutenak.

Taldeko jardunen adibideak:

- Talde-kohesioko dinamikak, Lehen Hezkuntzako 5.B taldean.
- Ohiko laguntza, Lehen Hezkuntzako 4.B taldean.
- Irakaskuntza partekatua euskaraz, DBH 3an.
- Banaketa heterogeneoak ahozko hizkuntza lantzeko, DBH 2an.
- BIDELAGUNA laguntza-programa.
- Curriculuma aberastea.
- ...

Jardun **pertsonalizuak** dira ikasle baten premia zehatzei erantzuten dietenak. Jardun horiek ohiko taldearen barruan egingo dira, ahal den guztietan. Batzuetan Arreta Pertsonalizatuko Planetan jasoko dira.

**Jardun pertsonalizuak** adibideak:

- Tutoretza pertsonalizatua.
- Kontratu didaktikoa edo pedagogikoa.
- Azterketa egiteko denbora luzatzea dislexia duen ikasle bati edo beste premia bereziren bat duen ikasle bati.
- Software espezifikoa erabiltzea testua ulertzeko/itzultzeko.
- Lan-plangintza pertsonalizatua (agenda pertsonala).
- Hizkuntza-indargarria.
- ...

Jarduera horietako asko Ikastetxearen Urteko Planaren hainbat ataletan jasoko dira: indargarriaren antolaketa, aniztasunari erantzuteko urteko proiektuak, Berriazko Hezkuntza Indargarriko Proiektuak, BIDELEGUNA, bizikidetzaren jardunak, hezkidetzaren jardunak... Ikasturtearen barruan, taldeko premiaren bat eta/edo premia pertsonalen bat hautematen bada, premia horri erantzun egokia emango dion beste jardun bat ere barnean hartu ahal izango da.

**2.3.** Irizpide inklusiboekin egindako antolaketa-**proposamena**, zuzendaritza-taldeari aurkeztuko zaiona, ordutegiei, baliabideei (giza baliabideei, baliabide materialei, espazioen antolaketari...) eta erantzukizunei buruzko erabakiak hartzerakoan kontuan har dadin.

Zuzendaritza-taldeak klaustroari aurkeztuko dio proposamena, onar dadin eta abian jar dadin.

**2.4.** Aurreikusten diren jardunen **jarraipena** egitea ikasturtearen barruan. Horretarako, jardun bakoitzean inplikaturako pertsonen artean (irakasleen, ikasleen, familien, boluntarioen eta abar artean) topaketak egiteko uneak edo informazioa trukatzeko uneak aurreikusi beharko dira.

Une horiek bat etor daitezke ikasleen jarraipenerako ezarritako koordinazio orokorrekin edo ohikoekin: ebaluazio-saioekin, familiekin egin beharreko bilerekin eta elkarrizketekin, ordezkarien bilerekin, gelako batzarrekin, eta abar.

Garrantzi handikoa da jardunen **arduradunek** idatziz jasotzea inplikaturako eragileek emandako informazioa (ikus H.5 tresna).

Aniztasunaren arretarako batzordea arduratuko da txosten horiek jasotzeaz eta aztertzeaz, eta jardueren arduradunekin batera erabakiko du zer hobekuntza sartu Aniztasunari Erantzuteko Planean.

**2.5.** Ikasturtearen amaierako **urteko balorazioa**. Balorazio horretan, ikasturtean zehar egindako jarraipenaren emaitzak hartuko dira kontuan, baita hezkuntza-eragileek egindako bestelako hobekuntza-iradokizunak ere.



Berrero ere, garrantzi handiko da irakasleen iritzia ez ezik, jardueretan parte hartu duten bestelako eragileen (ikasleen, familien, boluntarioen, monitoreen...) iritzia ere jasotzeko aukera emango duten formatuak artikulatzea.

Balorazio horretan, aztertuko dira lortutako emaitzak, aurkitutako zailtasunak eta kausak, baita hurrengo ikasturterako hobekuntza-proposamenak ere (H.4 tresna). Balorazioa ikastetxearen urteko memoriaren parte izango da, eta hurrengo ikasturteko abiapuntua izango dira.

## ANIZTASUNARI ERANTZUTEKO PLANA EGITEKO TRESNAK

H1. HELBURUAK FORMULATZEA

H2. HELBURUEKIN LOTZEN DIREN JARDUNEN PLANGINTZA

H3. JARDUN OROKORREN ETA ESPEZIFIKOEN URTEKO ZEHAZTAPENA

H4. JARDUNEN LABURPENA ETA URTEKO BALORAZIOA

H5. ANIZTASUNARI ERANTZUTEKO PLANAREN JARRAIPENA

H6. ANIZTASUNARI ERANTZUTEKO PLANAREN EBALUAZIOA, INDARRALDIA AMAITZEAN

### OHARRAK:

Tresna horiek orientagarriak dira. Horietako gehienak datu-bilketako eta/edo azken balorazioko prozesu baten laburpena dira. Ikastetxe bakoitzak zabal ditzake, egoki ditzake, berriak erants ditzake...

Gomendagarria izango litzateke ikastetxe guztiek datu horiek, modu batean edo bestean, biltzea, beharrezkoak baitira aniztasunari eman beharreko erantzuna behar bezala planifikatzeko.

## H.1 tresna: Helburuak formulatzea

<b>IKASTETXEAREN INDARGUNEAK ETA PREMIAK IDENTIFIKATZEA</b> <i>(Aniztasunari eman beharreko erantzunari buruz eta testuinguruaren analisiari buruz Ikastetxearen Heziketa Proiektuan eta Ikastetxearen Curriculum Proiektuan adierazten denari dagokionez)</i>		<b>HELBURUAK</b> <i>(Eskola-elkartea eraikitze, ikastetxearen antolaketa, funtzionamendua eta emaitzak hobetzeko eta jardunbide inklusiboak hobetzeko helburuak)</i>
<b>Indarguneak</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>• <i>Kanpoko eta barneko ebaluazioen indarguneak</i></li> <li>• <i>Berrikuntza-proiektu finkatuak</i></li> <li>• <i>Irakasleen prestakuntza</i></li> <li>• <i>Familien parte-hartzea</i></li> <li>• <i>Eskola-elkarteko baliabide finkatuak</i></li> <li>• <i>Talde-lanaren lidergoa</i></li> </ul>		
<b>Premia komunak</b> <i>zenbait bidetatik hautemandakoak</i> <ul style="list-style-type: none"> <li>• <i>Kanpoko edo barneko ebaluazioetatik.</i></li> <li>• <i>Eskola-elkartean, administrazioaren edo beste erakunde batzuen eskarrietatik edo proposamenetatik.</i></li> <li>• <i>Emaitza akademikoen analisitik.</i></li> <li>• <i>Balizko gogobetetze-inkestetatik.</i></li> </ul>		

<p><b>Premia espezifikoak</b></p> <p>Ingurunea aztertzearen ondoriozkoak, betiere ezaugarri familiarren, pertsonalen, sozialen eta kulturalen arabera eta tutoreek emandako informazio adierazgarriaren arabera.</p>		
--	--	--

## TRESNA

### H.2 tresna: Helburuekin lotzen diren jardunen plangintza

#### 1. helburua

Lorpenaren adierazleak:

Denboralizazioa	Arduraduna	Jardunak

#### 2. helburua

Lorpenaren adierazleak:

Denboralizazioa	Arduraduna	Jardunak

## URTEKO TRESNA

**H.3 tresna.** Jardun orokorren eta espezifikoen, taldekoen eta pertsonalizatuena, urteko zehaztapena

Helburuak			
	<b>Jardunak</b>	<b>Arduradunak</b>	<b>Koordinazioa</b>
Planean epe ertainerako aurreikusten direnak			

Taldekoak eta pertsionalizatuak, ikasturte honetan hautemandako premiekin lotzen direnak			
--	--	--	--





## H.5 tresna. Aniztasunari Erantzuteko Planaren jarraipena

**Jarduna:** .....

**Arduraduna:** .....

**Data:** .....

Hobekuntza-proposamenak	Premiak	Erdietsitako lorpenak	Abian jartzea, bai/ez

## H.6 tresna. Aniztasunari Erantzuteko Planaren ebaluazioa, indarraldia amaitzean

1. helburua:

Adierazleak eta balorazioa

2. helburua:

Adierazleak eta balorazioa

3. helburua:

Adierazleak eta balorazioa

4. helburua:

Adierazleak eta balorazioa

Balorazio globala, joerak, plan berrirako proposamenak.

# ***ARAUDIA EGUNERATZEA***

## **1. eranskina**

## **ARAUDIA EGUNERATZEA**

### **Legeria**

#### **Estatuko Lege Organikoa**

Euskal Autonomia Erkidegoko Haur Hezkuntzarako, Oinarrizko Hezkuntzarako eta Batxilergorako curriculum-dekretuak

118/1998 Dekretua (hezkuntza-premia bereziak)

<https://www.euskadi.eus/r48-bopv2/es/bopv2/datos/1998/07/9803194a.pdf>

### **Hezkuntza Sailaren Planak**

#### **Heziberri 2020**

Eskola Inklusiboa Garatzeko Esparru Plana, 2019-22

[http://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/inn\\_doc\\_esc\\_inclusiva/es\\_def/adjuntos/esc\\_uela-inclusiva/Plan\\_Marco\\_Escuela\\_Inclusiva\\_2019\\_2022\\_c.pdf](http://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/inn_doc_esc_inclusiva/es_def/adjuntos/esc_uela-inclusiva/Plan_Marco_Escuela_Inclusiva_2019_2022_c.pdf)

EAEko hezkuntza-sistamarako II. Hezkidetzeta Plana, berdintasunaren eta tratu onaren bidean (2019-2023)

[http://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/inn\\_doc\\_convivencia/es\\_def/adjuntos/co\\_educacion/92020191c\\_II\\_plan\\_coeducacion\\_igualdad\\_y\\_buen\\_trato\\_2019\\_2013.pdf](http://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/inn_doc_convivencia/es_def/adjuntos/co_educacion/92020191c_II_plan_coeducacion_igualdad_y_buen_trato_2019_2013.pdf)

Adimen-gaitasun handiko ikasleei hezkuntza-arreta emateko plana 2019-2022.

[http://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/inn\\_doc\\_esc\\_inclusiva/es\\_def/adjuntos/esc\\_uela-inclusiva/1002019004c\\_Pub\\_EJ\\_altas\\_capacidades\\_20-22\\_c.pdf](http://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/inn_doc_esc_inclusiva/es_def/adjuntos/esc_uela-inclusiva/1002019004c_Pub_EJ_altas_capacidades_20-22_c.pdf)

Atzerritar jatorriko ikasleen eskolatzea EAEko eskola-sisteman. 2018

[http://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/inn\\_doc\\_esc\\_inclusiva/es\\_def/adjuntos/diversidad/La\\_escolarizacion\\_alumnado\\_origen\\_extranjero.pdf](http://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/inn_doc_esc_inclusiva/es_def/adjuntos/diversidad/La_escolarizacion_alumnado_origen_extranjero.pdf)